

KONTU KONTARI**GERARD URRUTIA
URRUÑAN KANTARI**

Gerard Urrutia Jorajuria urruñarra da, 1959ko martxoaren 19an sortua. Gazte-gaztetik euskal nortasunari atxikia. Musika arloan, eskualdeko beste mutil lapurtarrekin osaturiko *Hegoak* taldean ibili zen kantari eta kanta-egile. Ordukoak dira bere lehen olerki musikatuak. Talde honek hiru disko plazaratu zituen: *Hegoak – 1*, *Hegoak – 2* eta *Bizia* izenekoak, eta hiruetan parte hartu zuen taldeko partaide gisa.

1980an hil ziren zartaturik IK-ko militante ziren Ramuntxo Arruiz baigorriarra eta Txomin Olhagarai itsasuarra eta haien omenez *Erotasunean* izeneko kantu eder eta sentitua konposatu zuen.

*Ikusten ditut zakurrak,
bortz haundiekin, errabiatuak,
Euskal Herriari ausikia,
ezin xehatuz zatika.*

*Ramun, Txomin, non zaudezte?
gure eki gidatzaile,
biok itxaropen ume,
nabi izan herri askatzaile.*

Geroztik Kuxkuxtu txarangarekin ibili da Euskal Herriko luze zabalean kanta-kantari. Kuxkuxtu erreferentzia bilakatu da Lapurdiko itsas-hegian, euskararen eta Euskal Herriaren aldeko ekitaldi guztietan. Jadanik, bi disko plazaratu ditu eta Gerard Urrutiak, gainerako adiskideekin batera, bi diskoetan (*Denak kuxkuxtu* eta *Irabazi* arte) parte hartu du.



ZU diskoaren azala.

Oraingoan, Gerard bere amets zahar bat bete du, bakarka egindako diskoa plazaratzea, alegia. Berriki, 2011ko ekainaren hastapenetan kaleratu du, eta dagoeneko, Euskal Herri osoan zabaltzen ari da poliki. Diskoak *Zu* izena du, auto-edizioz egin da, eta bere baitan hamaika abesti biltzen ditu. Abesti hauetako aintzek Gerard berak sorturiko hitzak dituzte. Izenburuaz galdetuta, zu horrek amodioari eginiko aipua dela dio, neskarekiko amodioa, hizkuntzarekikoa, Euskal Herriarekikoa,... askatasunarekikoa azken finean. Diskoaren ardatza,

beraz, amodioa dugu. *Enaile* izeneko kantuan emaztearekiko duen miresmenaren berri ematen digu.

*Zu gabe deus ez nitaike,
zu gabe nola bizi ninteke?
Zer bizia nuke zurea ez bazine,
butsa eta iluna, baliorik gabe.*

*Ez da urik iturririk gabe,
arrosarik hosto gabe,
ez eta poesiarik arimarik gabe,
amorosarik zu gabe.*

Disko honetan badira, bestalde, Euskal Herriari eta gaurko arazoei buruz mintzo diren kantu ederrak. Frantses estatuak Ipar Euskal Herriari ezartzen dion kolonizazioaz hitz egiten digu argi eta garbi *Iparralde* izeneko abestian.

*Kolonizazio isil-isila,
mendez mende eraikia,
sakona, maleziaz beteak
ito du gure erresuma.*

*Noiz arte egon behar dugu
Frantzia hori soportatuz?
Zanpatu, lehertu gaitu,
nortasuna dugu galdu,
arima digute kendu,
gogoak, indarrak hustu,
baien ikusmolde hedatu,
gu esklabo bilakatu.*

Laborantza Ganbara izenekoan Iparraldeko laborarien borrokaekin bat egiten du.

*Laborantza Ganbara euskaldunen tresna,
izanik barnekoa edo kostaldekoa,
denek elgarrekin goazen etxea eraikitzera,
nihork ez dauku kenduko dugun bolondatea.*

*Plaza erdi-erdian, xutik agertzen da
Ainhize-Monjolosen etxea, ederra.
Gora laborari eta Laborantza Ganbara!
Gora euskaldun semea, lurra maite duena!*



Gerard Urrutia Urruñako bestetan kantari

Niri biziki sentikorra egin zait arrotz presondegian zuten Euri izeneko Segurako neska militanteari eskainitakoa. *Segurako lorea* du izena.

*Zure izena da Euri,
lore polita iduri,
arrosa kolore gorri,
lurrin bedatzen haizeari.*

*Ekaitz zikin batek zaitu
zure sustraitik kendu,
bainan loreak ezingo du
etxetik urrun distiratu.*



Haititik ekarritako mutikoari eskainitako kantua ere sentimendu goxoz eta amultsuaz egina da. *Eneko* du izena eta doinu ezti batez lagundua da.

*Mutil ttiki bat nintzenean
ubaintzarrak gaindituta,
Haitik Euskal Herrira
itzultze gabeko bidaia.
Utzirikan sorlekua
ikasi dut bizia,
amaren beso artean
maitasunez bazia.*

Gerard Urrutiak plazaratu berri digun diskoa sentimendu handikoa da, ahots ederraz kantatua, bihotzez egina. Disko ederra, zinez. Lerro hauetatik merezi duen bide eta zabalkunde oparoa desiratzen diot.

Hala bedi

Joseba Aurkenerena Barandiaran